

Gasteizko eragileen parte-hartzea sustatuko du Hamaika Telebistak

«Hedabideak etorkizunean» jardunaldien barruan, Hamaika Telebistak aurkezpena egin zuen atzo Gasteizen, bertako eragileekin batera lehen urratsak emateko asmoz, horien parte-

hartzea bultzatuz. Data zehatzik eman ez bazuen ere, 18 hilabeteren bururako iragarri zuen Gasteizko egoitzaren sorrera tokiko euskal te-
lebista sare honen zuzendari Iñaki Uriak.

Itziar AMESTOY | GASTEIZ

Hamaika Telebistak, euskarazko tokiko telebista sarea izateko bidean, urrats berriak eman zituen atzokoan. Gasteizko eragileen aurrean ekimenaren berri eman zuen Hamaikako zuzendari Iñaki Uriak, guztien parte-hartzea sustatzeko asmoz, eta hedabide honen ezaugarri argia den hurbiltasuna erakutsiz.

Euskarazko Komunikazio Taldeak antolatutako "Hedabideak etorkizunean, biharko komunikabideak eta Internet" jardunaldiak izan dira aste honetan Gasteizko Artiumen. Atzokoan, hots, jardunaldien azken egunean, telebista izan zuten hizpide. Hitzordurik esanguratsuenetakoa 19.30etakoan izan zen, alegia, Hamaika Telebistak egindako aurkezpena. Euskal Herri osoan tokiko euskal telebista bultzatzea helburu duen ekimenak sare kontzeptuarekin egin nahi du lan. Hala ere, urrats finkoak emateko asmoz, oraingoz Bilbon baino ez du igortzen. Atzo Iñaki Uriak jakinarazi zuenaren arabera, urte eta erdiko epean Gasteizen ere izango da, ordea.

Parte-hartzailea izatea da, beste alde batetik, hedabide egitasmo honen ezaugarri nagusietako bat. Hori dela-eta, atzoko

aurkezpenean Gasteizen eta Araban esanguratsuak diren hainbat eragile gonbidatu zituzten. Horrela, Hamaika Telebistaren egitasmoen berri bertatik bertara jasotzeaz gain, horiek parte-

hartzea bultzatu nahi zuten. Behintzat, bide horretan kokatzen den gonbita egin zuen Uriak. Berarekin batera Hamaikako administrazio kontseiluko lehendakari Iñaki Altzagak ere

aurkezpenean behar zuen, baina azken orduko arazoak direla medio ezin izan zuen bertaratu. Bestalde, Arabako Kultura diputatua, Lorena Lopez de Lacalle, Artiumen izan zen aurkezpene-

an, baita lurraldeko beste politikari batzuk ere.


Euskara hutsean egindako telebista baten behar argia dagoe-la nabarmendu zuen Iñaki Uriak. Hori horrela dela edo horren garrantzia ezbaian jarritz, berak, Bilbon igortzen hasi aurretik, entzundako komentarioen berri eman zion publikoari.

Horren harira, eta Gasteizen euskarazko telebista bat egiteko arrazoiak zalantzan jartzen duenaren aurrean, «euskaldunak eskubideaz gain, telebista euskaldun baten gogoia eta beharra» ere badituela nabarmendu zuen. Hori dela-eta, euskalduntze prozesuan telebistak tresna bezala izan dezakeen indarrak ziur agertu zen. Beste behin ere, bide horretan jarraitu ahal izateko indarrak biltzeko beharra agerian utzi zuen, bertaratutakoan artean parte-hartzea sustatuz.



Hamaika Telebistaren aurkezpena, atzo, Gasteizko Artium museoan. Irudian, Iñaki Uriak zuzendaria.

Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS



Kepa Altonaga idazle eta biologoa, atzo, Iruñean.

Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

Kepa Altonagak jaso du aurtengo Zelaia saria, «Darwin geurean» lanarekin

GARA | IRUÑEA

Kepa Altonaga (Loiu, 1958) biologo eta idazlearentzat izan da Pamiela argitaletxeak eskainitako aurtengo Zelaia saria. Berak egindako "Darwin geurean" lana gailendu da lehiaketara aurkeztu diren hamar lanen artean.

Epaimahaikideen aktak dioenaren arabera, «gehien- go erabatekoaz, gure aroan oraindik ere, eta berriz ere, puri-purian dagoen gaiak -darwinismoa- euskal munduan izaniko eragina aztertuz ongi dokumentaturiko lana jakinduriaraz eta gaitasun

handiz garatzen duelako. Bertan, Darwinen teoria azaldu zenez geroztik XX. mendeko erdialdera arte, berri eta aurkikuntza interesgarriak betetako bidaia erakargarria proposatzen da, mailako dibulgazio zientifikoan eta gai horri buruz erreferentzial izan den lana burutuz».

Aurten aurkeztutako lanetan gai aniztasuna izan dela eta, oro har, maila oneko lanak izan direla aitortzen du Anuntzi Arana, Joxemiel Bidador, Bixente Serrano Izko, Pilar Yoldi eta Jose Angel Irigarayk osatutako epaimahaia.

«Gai eta arlo desberdinak jorratzen dituzten lanak alderatzea zaila baldin bada ere, eta beste zenbait lan ere balioetsi direla adierazirik utziz, lehenbiziko kanporaketak egin ondoren hiru lan gelditu dira azken hautaketa aldirian», zehaztu zuten. "Darwin geurean", "Harritu (post-hazkunderaren gizarerako trantsizioaz)" eta "Itsas-oholak bezala" izan dira lan horiek.

Aurkeztutako lanen jatorriari buruz, nabarmendu zuten bi Ipar Euskal Herrikoak izan direla, eta gainerakoak Hego Euskal Herrikoak.